

TALDEA: KASU-AZTERKETA

Ondorengo egoera desberdinak emanik, kohesio, parte hartze eta erabakiak hartzeko dimentsioen arabera eta aukeratutako tekniken egokieraren arabera, jokatzeko era baloratu eta interpretatu ezazu. Beraz, egoera azaltzean, bertan erabiltzen edo iradokitzen den/diren teknika/teknikak identifikatzean eta aukerak planteatzean (zuri egokia iruditzen zaizunean) datza ariketa.

- 1.1 Jon orientatzailea da ikastetxe txiki batetan. Egun batean, beste ikastetxe handi batetara lekualdatzen dute eta bertako zuzendariak bere ikastetxea nola funtzionatzen duen eta nolakoa den azaltzen dio. Lehenengo hilabetea pasatu baino lehen, tutoretza programa azaltzeko batzar bat egiten du- Inorengan konfiantza eduki ezin izango balu bezala eta lan guztia berak bakarrik egin beharko balu bezala jokatu du.
- 1.2 40 pertsonako talde bat lehenengo aldiz elkartzen da kurtso hasieran. Tutorea, erabaki hartze partehartzailea garrantzitsua dela kontutan izanik, lan egiteko zein sistema erabiliko duten guztien artean erabakitzea pentsatzen ari da. Honetarako erabiliko duen teknika aukeratzeko zalantzak ditu. Alde batetik, interbentzioei berezotasuna emateko Gunea-ren teknika ondorengo kontsigna honekin erabili dezakeela pentsatzen du: “nola egin nahi duzu lan gela honetan?” . Bestalde, Bi Zutabeen teknika ere egokia iruditzen zaio.
- 1.3 Eskolako zuzendari arduraduna zuzendarietzako kurtso batetara joan da eta elkarlanaren teknika probatzea erabakitzen du. Horretarako, zuzendaritza taldekideak elkartzen ditu eta txosten bat ematen die irakurri dezaten. Hurrengo bileran, irakurketaren arabera, “egin beharreko aldaketak zeintzuk diren” azaltzen ditu. Berak, bere proposamenak aurkezten ditu eta beste bi pertsonak proposamen horiei ñabardurak egiten dizkiote. Bera oso pozik dago emaitzarekin eta elkarlanaren onurengan sinesten hasten da.

Beste zuzendari arduradun bat, kurtso berdinerara joan da eta bere taldea elkartu baino lehenago, banan-banan era informal batean, jendeak zergatik ez duen enpresako martxan gehiago lankidetzen¹ galdetzea pentsatzen du. Eman dizkioten erantzunen zerrenda bat egin du. Ondoren, guztietatik lantzea errazena izango dena iruditu zaiona aukeratu du eta taldea elkartu du. Pertsona bakoitzari hobekuntza bat sartu ahal izateko zertaz arduratu daitekeen esatea eskatzen dio, eta berriz ere 15 egun barru elkartzeko asmotan geratzen dira.

- 1) Zure bizitzan bizi izan dituzun kasu bat aurkeztu ezazu; kasu hau talde egoeren maneiu baikorra erabili diren kasuak izanik. Egoera bakoitza deskribatu ondoren, gaian azaldu ditugun aspektuak landuz egoera bakoitza interpretatu ezazu.
- 2) Jarraibide-gida bat eraiki ezazu (ez hamar jarraibide baino gehiago). Jarraibide hauek zure ustetan, talde lanean oinarritutako sistema bat erregulatzeko balio ahal dute. Testuinguru zehatz gisa, ikasgai hau hartu ezazu.